

ANTONIMOAK

Gogoratu antonimoak kontrako esanahia daukaten hitzak direla, adibidez, urrun eta hurbil.

1. Irakurri testua eta kokatu hitz bakoitza bere antonimoaren gainean.

Amazonia Hego Amerikan dagoen baso tropikala da eta munduaren birrikak direla esaten da oxigeno asko isurtzen duelako. Amazonian Amazonas ibaia dago. Munduko ur gehien daukan ibaia da eta luzeran bigarrena da (6.400 km, Nilo ibaia da lehenengoa). Klima beroa eta hezea da nagusi Amazonas ibaiaren arroan.

lehorra

gutxi

hotza

gutxien

2. Lotu antonimoak:

ZABALA

ILUNA

AZKAR

JOAN

BIGUNA

ARGIA

ASTIRO

GOGORRA

ESTUA

ETORRI